


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko uztailearen 5a



Internet, euskaldunen topagune

■ Internet sareak hamaika aukera eskaintzen duela ez du inork ukatzen. Gero eta jende gehiago konturatzen ari da horretaz. Interneten barruan bada Euskal Herriari buruzko gaien inguruan eztabaida gunea, *Basque list* alegia. Horren bidez,

Amerikako euskaldunekin harremanetan jarri da Mikel Aranburu nafarra. Euskal izenez, kantuez, bertsoez eta euren abizenen esanahiaz galdetzen dute oro har. Horren guztiaren berri eman digu Aranburuk. ■

Tren txun txun

Lur deslaia

PILI YOLDI



Buruari bueltaka nengoen aurtengo Sanferminetarako sosa nondik atera pentsatzen. Azken urte hauetan ez da erraza, ez, eta fijasen aritu naiz.

Argazkiak egiteko montatzen dituzten kartoizko eszenarioak gustatzen zaizkit niri: dantzaria, indartsua eta toreroa. Beno, sevillana eta sirena batek kristoren arrakasta izaten ohi dute. Fijatu naiz. Baina kamara arraro bat behar, eta nola?, ez baitakit nik argazkirik egiten.

Beste batean zera ikusi nuen: zulo bat zeukan panel batetik, tipo batek burua ateratzen zuen jendeak arraultzak aurpegira botatzeko. Eten gabe zegoen, eta bai dirutza tipoak momentu batean atera zuena. Aurten txorizo ospetsu batzuen maskaraz mozorrotzen bada, fijo forrauta.

Buelta asko eman ondoren, ideia Iruñeko Udalak eman dit eta nere aurtengo ogibidea asmatu dut: tren txun txun bat. oso inbento ona, benetan, gainera alde

zaharrean ibiltzeko, primeran, Sanferminetan trafikorik ez baita hortik izaten, nik behintzat ez dut ikusten. Kale guztiak guretzat; Udalaren trenarentzat eta neretzat.

Donostian bezala, atzerritarrez beterik paseatzen. Umeak ere bai. Egia esan, Riau-riaua erakusteko eta entzierrorietarako ez da oso aproposa, ez, jende mordo bat izaten delako. Baina gauerako? Zoragarria: tabernaz taberna ibiltzeko, zeren ordu horietan jadanik trena ez dugu negoziotarako erabiliko, gure bidaietarako baizik. Pittin bat gehiago edanez gero, tren txun txunera; azkenean lagun guztiak elkarrekin joan gara parrandan, hortikan inor galdu gabe. Eta hankak ezin altxatu gabiltzala, neka-neka eginda edo lagunak etxera ezin eraman gaudenean? Kuluixa bat botatzeko astia ere izanen dugu, dudarik gabe.

Gauetz ibiliko gara, bai. Momenturik egokiena da, egunez prozesio asko iza-

ten baitira, eta ez diegu apaizei moles-tatu behar. Gero, jomala goizaldean aterako dugu: Dianetara eramango dugu jendea, Pamplonesaren atzetik, bati baino gehiagori izugarritzko mesedea eginez, bandak abiadura ikusgarria eramaten du ordu horietan eta.

Eta zezenketara joateko? Primerakoa gure trena. Sorbetez beteriko ontziekin karraketan ibiltzea zikina izaten da. Gainera, Txantreakoak ez al dira Villavesa batean igotzen?

A ze asmakizun ona! Udala pozik edukitzeko, jubilatuentzako bueltatxo bat doahinik eskeini behar diegu, hala, denak Arrosadiara joan behar baitira vedetteak ikustera.

Tramite asko egin behar direla esan dit gaur aldameneko batek. Tramiteak? Bah, gidatzeko karneta bai. Haziendarekin, aurtengoa. Eta gainera, kanpotarrak bagina bai, baina etxeokak gara, ezagutzen gaituzte. Esandakoa: aurtengoa millonarioak. X

KONTZERTUAK

Aitzoain: Los Mierdosos, Los Insoportables eta Los Berzas taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 5, 23.30etan Artsaia Music Cluben. Jaiak amaiera emanen dio aurtengo denboraldiari. Sarrera 800 pezeta kostatzen da da aurretik hartuz gero, eta 1.000 pezeta txarteldegietan.

Zangoza: Raul del Toro organo joleak kontzertua eskainiko du Santa Maria elizan, arratsaldeko 8.30etatik aurrera, Zangozako Udal Bandaren 100. urteurrena dela eta prestatutako ekitaldien barruan.

ANTZERKIA

Iruña: Pedro Osinagaren konpainiak *Dos mejor que una* taularatuko dute hilaren 11tik 15era arte. Lehenengo emanaldia bederatzietan izanen da, eta bigarrena hamabietan. Pedro Osinagaren antzerkia ez da, seguru asko, kalitate handieneko antzerkia, baina onartu beharra dago dagoeneko Sanferminetan txupinazoa bezain ohikoa dela.

ERAKUSKETAK

Elizondo: Juan Karlos Pikabearen margoak herriko Arizkunenea Kultur Etxean ikusgai izanen dira bihar arte.

Lizarra: Fray Diego Kultur Etxean Elena Zabalaren oleo, marrazki eta collageak dira ikusgai, hilaren 19ra bitartean. Astelehenetik larunbatera dago zabalik, arratsaldeko 6.30etatik 8.30ak arte.

LEHIAKETAK

Burlata: Burlatako Udalak 1996ko jaiak iragarriko dituen kartela hautatzeko lehiaketa deitu du. Irabazleak 100.000 pezeta jasoko ditu. Uztailaren 15ean amaituko da lanak aurkezteko epea.

Iruña: Sanfermin Txiki jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Navarrerria Auzoko Jai Batzordeak. Orijinallek Din A-3 tamaina izan beharko dute, eta egileek irailaren lehena baino lehen aurkeztu beharko dituzte Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartearen (Aldapa kalea, 5). Irabazleak 35.000 pezeta patrikaratuko ditu.

BESTELAKOAK

Iruña: Iruñerriko AEK-k egin Sanferminak Musutruk zozketan 408. zenbakia izan da sariduna. Irabazlea gaur gaueko 8.00ak baino lehen agertzen ez bada, 3.696 izanen da zenbaki sariduna. Saria jasotzeko Nafarroako AEKren bulegotik pasa (Jarauta 2, 1.a ezk) edo deitu 22 02 13 telefonora.

Oharra:

Sanferminak direla eta, egunero jaietako buruzko gehigarri berezia argitaratuko dugu Iruñetik; beraz, datorren astean ezin izanen dugu Nafarkaria kaleratu. Hilaren 19an, hala ere, eskura izanen dugu hurrengo zenbakia.

nafarkronika

Patxi Larrion

Berdintzen gaituena

Mugarria izaten dira. Maiz orriotan aipatu dugun legez, unea probesten jakin behar da, eta Sanferminak egoki dira horretarako. Politikariek, orain arte agintean izan ditugun horiek, ederki frogatu digute kontu hori, eztabaida piztu dezaketen gaiak uztailaren 6a baino lehen aurrera ateratzeak gizartearen erantzuna moteltzeko balio izan ohi du. Aurten honetan, Nafarroa Garaiko politika aspaldidanik bideratzen dutenak ez dira alferrikan aritu, ez dute aukera galdu. Hilabete eskas batean gauzak bere onera ekarri dituzte. Horretan iaioak dira.


Gobernu berria osatzeke bada ere, garbi da UPN horren barruan egonen dela. Momentuz ezin jakin aukera on bat galdu den ala ez. Eztabaida honetan zenbait presio talderen ahal-

mena hamaikagarrenez agerian utzi da. Horretan ezer gutxi aurreratu dugu euskaldunok. Agintea eskuratzeko —eskuz aldatu den ala ez eztabaidagarriagoa litzateke— prozesua ematen ari zen bitartean amaitezinak diruditen liskarretan sarturik ginen euskaldunok, euskaltzaleok, euskaradunok. Besterik ezean iritzi trukaketa horiek euskaraz eman dira. Alta, iritzi trukaketak al dira? Afera honetan norberak berea. Zinez aditzen al ditugu besteak pausatutako argudioak?

Ezer gutxi aurreratu dugu. Garai zaharretako mintzamoldeak erabiltzen ditugu, eta arerioak hori baliatzen ikasi egin du. Bihartik aurrera anaitasuna nagusi, ustezko berdintasuna nonahi, gurean ere, bederatzietan eguneko. Uda amaitzean hain *gogoko* dugun urrutiratzeak berdinduko gaitu.



asteko pertsonaiak



Javier Igal
Iruñeko Udaleko zinegotzia

■ UPN-KO zinegotzi honek botako du bihar tupinazoa Iruñeko udaletxeko balkoitik, eguerdiko hamabietan. Horrelakoetan, irratiko zein telebistako esatariek ohiko topikoak erabili behar izaten dituzte: «Eztanda egin du festa», «Mutikoen zapiak jai olatu gorriak osatzen ari dira Udaletxe plazan» eta abar aspergarri luzea. Aurten, alta, esatariek beste zerbaitez mintzatzeko parada izanen dute, Zarrakazteluko erregionalistak jaietako hasiera ematerakoan berrikuntzak sartuko dituela iragarri baitu. «Neure burua kreatibotzat daukat, eta hitz egiterakoan formula berriren bat bilatuko dut». Formula berri horretan euskarak bere tokia izanen du; izan ere, «Nafarroako hiriburua elebiduna da, eta, gainera, txikitzen Arzalluzen gelakide izan nintzen Durangoko jesuitetan».



Ruben Beloki
Pilotaria

■ BURLATAKOA haserretu egin da Asegarcerekin. Belokiren arabera, enpresak Sanferminetako txapelketa jokatzeko hautatu du min hartuta zegoela jakinik. Burlatakoak eskuineko sorbalda kolpea jaso zuen joan den igandean. Asegarcerek Sanferminetako lau eta erdiko txapelketan parte hartuko zuela jakinarazi zionean, Burlatakoak enpresari lesioaren berri eman zion, eta Ubarmin klinikaren ziurtagiria aurkeztu zuen horren lekuko. Hala eta guztiz ere, Asegarcerek besteak beste Burlatakoaren izena aipatu zuen asteazkenean Sanferminetako txapelketa aurkezterakoan. Beloki kezkatu ageri da: «Labrit nire pilotalekua da, eta ez dut baldintza txarretan jokatzeko arriskatu nahi».

ahaztu gabe!



Pirinioetan barna zeharkaldia

Iruña: Nafarroa Kirol Elkarteak, Nafarroako Mendi Eskolaren laguntzaz, Pirinioetan barna hiru zeharkaldi antolatu ditu hilabete honetan. Lehendabizikoa uztailaren bostetik bederatzira izanen da, eta Arandik atera eta Aigues Tortesera helduko da. Bigarrena uztailaren 16tik 23ra luzatuko da. Honek Vignemalen izanen du irteera, eta Belaguan akabera. Azkena uztailaren 24tik 31ra gozatu ahal izanen da, eta Belagutik aterata, Hendaian izanen du helmuga. Izatez gazteei zuzendutako mendi martxak dira, baina sasoi onean dagoen edonork parte har dezake. Zeharkaldi horietako bakoitzean gehienez 15 lagunek hartuko dute parte, eta, beraz, izena ahalik eta lasterren ematea komeni da, azken uneko ezustekorik gerta ez dadin. Informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko dei ezazue 22 98 20 telefonora, edota hurbil zaitezte Nafarroa Kirol Elkartearen egoitzara, Jarauta kaleko 78. atarira hain zuzen ere.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, Zokobetailu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara Gauza guztien gainetik, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Elizondo

Kultura nagusi Baztan-Bidasoan

Zinema, musika, dantza, herri kirolak eta beste hainbat ekitaldi abuztuan

A buztua kultur ekitaldiz gainezka etorriko zaigu Elizondon eta Beran. Nafarroa: Turismoa eta kultura egitarauak zinema, musika dantza, herri kirolak eta beste hainbat ekitaldiz gozatzeko parada eskainiko digu.

Alberto Barandiaran / Iruñea

ZINEMA, musika, dantza, herri kirolak, pintura erakusketak eta eskulangintza, besteak beste, izango dira abuztuan Elizondon eta Beran, Nafarroa: Turismoa eta kultura izeneko egitarauaren barruan. Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteria eta Industria, Merkataritza eta Turismo departamentuek Bertizko Partzuergo Turistikoarekin batera antolatuta, udan Baztan-Bidasoara hurbiltzen diren bisitariak eskaintza kulturala ematea izan da helburua, azpimarratzeko, atzo Pedro Burillo kontseilariak egin zuenez, «kulturak funtsezko tokia bete dezakeela aisialdian».

Emanaldiak Elizondon hasiko dira abuztuaren 1ean. Sine Nominis musika tailerrak Santiago Apostol parrokiaren emango duen kontzertuarekin, eta, egunero, emanaldi ezberdina aurkeztuko dute Baztango ballarako hiriburuaren toki zenbaitetan. Ortazar dantza taldea, organo jole, biolin jole eta paino joleen kontzertuak, zinema —Tasio eta Akelarre pelikula—, eskulangintza feriak eta herri kiroleko proba konbinatuak..., egitarau bera izanen da gero Beran, abuztuaren 19tik aurrera. Hilabete osoan Bidasoako paisajistikak, gaur, izeneko erakusketa egongo da zabalik Berako Kultur



Tasio filmea eskainiko dute Elizondon.

ARTXIBOKOA

Etxean. Egitarauaren aurrekontua 7,5 milioi pezetakoa da (300.000 libera inguru), eta horren zatirik handiena —5,5 milioi pezeta— bi departamentuek jarri dute. Gainontzekoa Bertizko Partzuergoak emango du.

Pedro Burillo Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteria departamentuko kontseilariak atzoko aurkezpenean azaldu zuenez,

hau da fundazio baten eta Nafarroako Gobernu departamentuen artean egiten den horrelako lehen hitzarmena, baina aurrerantzean jarraitzeko asmoa dutela esan zuen. Iñaki Cabases Industria, Merkataritza eta Turismo kontseilariak, berriz, azpimarratu egin zuen alderdi honek turismorako duen jarrera, eta gogoratu zuen 20.000 biztanle

inguru bizi diren Baztan-Bidasoara 35.000 bisitari iritsi zirela 1995ean. Patxi Oñartzabal Baztango alkateak eskertu egin zuen bi Kontseilaritza hauetatik egindako ahalegina, baina izan zuen kritika bat: «Hurrengoan aukera gehiago eman diezagutela egitarau osatzen parte hartzeko, oraingoan dena egina aurkeztu digute eta». X

Corella

Dantza Jaialdia hasiko da Corellan hil honen 18an

Nazioarteko bost talde etorriko dira Nafarroara

Erredakzioa / Iruñea

DANTZA FOLKLORIKOAREN Nazioarteko Bosgarren Jaialdia hil honen 18an hasiko da Corellan. Uztailaren 24a bitartean, gainera, Lizarran, Azkoienan, Lodosan eta Tafallan ikusgai izanen dira nazioarteko hainbat dantza talde. Jaialdia bost udalen lanari esker antolatuko dute, Principe de Viana erakundearen laguntzaz.

Nafarroako aipatu herrietan ikusi ahal izanen diren taldeak dira Bulgariako Dantza Taldea, Vanakoa, Argevin Talde Folklorikoa, Anjoukoa, Riau Talde

Artistikoa, Indonesiakoa eta Mexikoko Hidalgo Balet Folklorikoa. Talde guztiak bost herrietan izanen dira, zezenplazan. Lizarran izan ezik, Foruen plazan izanen baita. Corellan eta Lizarran 300 pezeta balioko du sarrerak eta gainontzekoetan dohainik izanen da.

Principe de Vianako ardura-dunek azaldu dutenez, atzerriko kulturen folklorea erakustea da Jaialdiaren xedea eta, bide batez, herrietako eskaintza handitzea. Iaz ere, jaialdian parte hartuko duten taldeak izan ziren Nafarroan eta arrakasta itzela lortu zuten. X

Tutera

Txalupen Ebroko VIII. Jaitsiera antolatu dute

Larunbatean egingen dute, arratseko 4.30etan

Erredakzioa / Iruñea

TUTERAKO AUZO ELKARTEAK Txalupen Ebroko VIII. Jaitsiera antolatu du eta Erriberako kolektibo, talde eta elkarte ezberdinei luzatu die parte hartzeko gonbitea. Larunbatean Arratsaldeko lau eta erdietan aterako dira txalupak. Helmugara, berriz, arratsaldeko zortziak aldera iritsiko direla espero dute antolatzaileek.

Azpimarratu dutenez, «Txalupen Jaitsiera ez da karrera, ibaian arratsaldea jai giroan pasatzeko aukera baizik». Tuterako zubiko Makaldira aile-

gatuta, hain zuzen, txistor jatea izanen da, bertako ardoak lagunduta.

Jai eguna ezezik, aldarrikapen eguna ere bada Txalupen Jaitsiera. Urtero, Garoñako zentral nuklearra kentzeko eskatzen dute partehartzaileek. Antolatzaileak, halaber, «Itoizko urtegiaren legez kanpoko obren aurka» agertu dira aurtengoan. Erriberako ibarba-soak berreskuratu beharra ere nabarmendu nahi izan dute antolatzaileek aurtengo ekitaldian: «Ebro ibai garbi eta osasuntsua aldarrikatuko dugu larunbatean». X

Goizueta

Etzi bukatuko da trikitilarien lehiaketan izena emateko epea

Abuztuaren 15ean Goizuetan izanen da lehen kanporaketa

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Trikitilarien Hirugarren Txapelketan parte hartzeko deialdia egin dute dagoeneko antolatzaileek. Izena emateko epea zabalik da igandera bitartean. Partehartzaile kopuruaren arabera, hain zuzen, finalaurreak antolatuko dituzte. Bi kanporaketa izanen da, lehenengoa abuztuaren 15ean, Goizuetako bestetan, eta bigarrena irailaren 1ean, Lakuntzako bestetan. Finala, berriz, Asteasuko jaietan izanen da irailaren 15ean. Bertan, puntuaziorik altuena lortzen duten zortzi bikoteak izanen dira lehian.

Nafarroan bizi diren trikitilari guztiak hartu ahal izanen dute parte. Ohizko piezak jo beharko dira. Kanporaketetan, partehartzaile kopuruaren arabera, hiru edo lau pieza jo beharko dituzte.

Epaimahaiari dagokionez, trikitilariak trebetasuna, piezaren zailtasuna, neurria eta erritmoa, adierazkortasuna, pandero eta soinuen elkar hartzea eta ahotsa eta kantua hartuko ditu kontuan irabazleak aukeratzeko. X

Lizarra

Australiako eta Ingalaterrako bi taldek Lizarran joko dute astelehenean


Arratsaldeko zazpitan Oncineda ikastetxean

Erredakzioa / Iruñea

FUNKABUBBLE musika talde ingelesak eta The Saint talde australiarrak kontzertua eskainiko dute Lizarran datorren astelehenean, arratsaldeko zazpitan aurrera Lizarrako Oncineda ikastetxeko karpan. Udako Gazteriaren Bulegoaren laguntzaz antolatuko dute aipatu kontzertua. Berau, Australia, Zeelanda Berria eta Hego Afrikako hainbat gazte taldek Europan zehar egiten ari diren bidaiaren barruan kokatzen da.

Lizarran bezala, gazte taldeek bisitatuko dituzten beste hainbat lekutan ere antzeko kontzertuak eta hainbat ekitaldi antolatuko dituzte, Big Bang Promotions elkartearen eskutik. Lizarrako kontzertua Sanferminak larunbatetik aurrera ospatuko direla kontuan hartuz antolatu dute, gazte asko baitago egun hauetan Iruñean. X

Mundu zabaleko euskaldunak
Interneten bilduta



Euskadi Information Interneteko orrialdea.
EDURNE KOCH

Gero eta leku gehiagotan zabaltzen ari da Internet. Sarean barrena nabigatzen direnentzat hamaikatxo aukera eskaintzen du. Mikel Aranburu nafarra ere iritzi berekoa da. Orain urtebete deskubritu zuen berak Internet, eta euskal gaiak atsegin dituenek, *Basque List*-an bat egiten du beste 200 bat erabiltzailerekin. Estatu Batuetako eta beste hainbat herritako euskaldunekin harremana lortu du Interneten bidez. Horren berri eman digu datozen lerroetan.

Interneten bidez sustraien bila

Basque List eztabaida gunearen bidez harremanetan dira hango eta hemengo euskaldunak

Edurne Elizondo / Iruñea

INTERNET sareak hamaika aukera eskaintzen duela ez du inork ukatzen. Erabiltzaileen kopurua ere handiagoa da egunetik egunera. Interneten omen dago komunikazioaren etorkizuna. Munduko edozein herritako jendearekin harremanetan jarri ahal izateak, aldi berean hainbat pertsonarekin elkarrizketa izateak, nazioarteko enpresa, talde, erakunde eta abarri buruzko informazioa tekla bat sakatzuz eskura izateak, zalantzarik gabe, ordenadorezaleen irudipena piztu du.

Interneten bidezko harreman elektronikoa dei genezakeena jaio da. Gutunen bidezko lagunak historiaurreko kontuak dira. Interneten bidezko harremanak dira gaur egungo izarrak. Egia erran, munduko hamaika txokotatik bidalitako mezuen gurutzatzeak aukera zabala eskaintzen du.

Edonork nahi duena igor dezake eta nahi duenak edozer erantzun trukean. Eztabaidarako gaiak infinituak dira Interneten.

Mikel Aranburu nafarrak, baina, euskal gaiak ditu gogoko. Hori dela eta, *Basque List* delako posta zerrenda edo eztabaida gunean bat egiten du beste 200 bat erabiltzailerekin. Euskal Herriarekin zerikusirik duen edozein kontuk lekua du bertan. Iruñeko Xalbador liburudendako lanak uzten dion denboran egin zuen topo Mikel Aranburuk Internet sarearekin. Hasierako jakinmina benetako interes bilakatu da denborak aurrera egin ahala. «Ezustekoa izanen dudana esperantzarekin itzultzen naiz etxera, mezurik izanen al da niretzat?»

Interneten bidez familiaren bila • *Basque List* Euskal Herriari buruzko eztabaida gunea da. Era-

biltzailerek euren iritziak utzi eta besteak irakur ditzakete. Politika gaiak pisu handia dute aipatu gunean, baina badira beste hainbat gairi buruzko eztabidak ere. Mikel Aranburu Euskal Herriari buruzko aipatu gunea da Interneten munduan nabigatzen hasi zenean aurkitu zuen lehen-dabizikoa eta berau ezagutzen du gehien. Lagun berriak egin ditu, gainera, bertan; eztabaidarako gunea ezezik, hainbat herritan zehar barreiatutako euskaldunek elkarren berri izan dezaten ere baliagarria baita *Basque List*. «Diasporan dauden euskaldun-

«Diasporan dauden euskaldunekin harremanetan jartzeko oso baliagarria izaten da Internet»

nekin harremanetan jartzeko oso baliagarria da Internet. Euskal Herriari bizi garenok lagungarriak izan gaitezke eurentzat eta baita haiek ere guretzat. Munduan zehar, finean, euskaldun asko dago, baita euskaldun jatorriko jende ugari ere. Beraz, Euskal Herria zer den kontatu eta hemengo gora-beheren berri ematen ahal diegu. Guk, halaber, gutaz kanpoan zer iritzi duten edo kanpotik gauzak nola ikusten diren jakin dezakegu euren bidez», azpimarratu du Mikel Aranburuk.

Diasporak Euskal Herriatik kanpo Estatu Batuetara eta Amerikako beste hainbat herritara eramandako haien ondorengoek, hain zuzen, Interneten aurkitu dute euren jatorria ezagutzeko tresna. «Euskal izen propioak eskatzen dituzte, kantuak, bertsoak, baita euren abizenen esanahia ere askotan». Bitxikeriek ere badute lekua *Basque*

List-en zurrumbloan: «Berriki, Euskal Herriko eztei ohiturei buruzko informazioa eskatu du jatorri euskalduna duen estatubatuar batek, abuztuaren baita ezkontzekoa. Bada atsotitzak igortzen dituen beste bat, bizpahiru noizean behin eta dagokien azalpena euskaraz eta ingelesez idazten du».

Abizenen ildoak ekarri dio Mikel Aranbururi, beste askori bezala, Interneten bidezko harreman sakontzeko aukera. «Bere abizenaz galdezka mezua idatzi zuen estatubatuar bati erantzuna bidali nion, eta hori ikusita, Kaliforniako Loreta Urrizola Erro jarri zen nirekin harremanetan». Bere abizenaren jatorria ezagutu nahi zuen Loreta Urrizolak. Bazekien bere aitona Nagorekoa zela eta bertatik joan zela Estatu Batuetara. Amona, berriz, Esonoakoa zuela. Informazio hori bere esku edukita Nagoren bilatu eta oraindik Urrizola Errotarrak

Mundu zabaleko euskaldunak
Interneten bilduta

mintzoak

Xamar

Idazlea

Bienvenido,
Mister
Marshall

■ Urteak badira sendakinak debeku tinkoa ezarri zadanetik: español zinearen ez ikusteko debekua. Eskertu nakon biziki, zeren zinezale sutsua izaki delako zine hori ikusten ez beinuen, buru-nahasmendureino eraman ninduen. Oino arras osaturik ez egonik ere, hobeki nae, esker mila. Halere gogoia dudana filmetarik bat goikoa da, eta berriz ere heldu zait burua egun hauetan. Bixi bada frantsen Tour horrek du hobena.

Gauren ibarretan barna heldu da eta dagoeneko arras begi bixtakoak dira haren etortzearen abantailak.

Turismo ofizian ibar lasata leloa eman dako eskualdeari, *ibar atzenduak* deitu beharrez; baia orakoan ez. Asfalto berria nonnahi usmatzen da eta zapatzen, dorre bixi zemeit esker-eskuin agertzen ari (hari gabeko telefonoendako diotenez), bide bazterrak garbitzen eta txukuntzen, bai eta egiten ere zemeit kasutan, aholkuak ematen jendeari kabaleak direla eta, bide seinale berriak ezartzen (bai, Euskaraz ere bai, beti bezain makur: Aurtitz Auritz beharrean...).

Ez da hau guzia, ez. Gobernutxoak sari bat emanen dako Tourra pasten den herririk txukunari, eta horren laguntzeko liliak banatuko ditu galerietan ezarri nahi dituzten herritarren artean.

Erran-merranak aditu dira bazterrean, baia nik ez dut guzia jinetsi nahi, ezkauna, tipikoa izainen da baia ni ez naiz aetzez jantziko ziklisten ikusteko. Alkateak ere ez omen daude prest, ixtanpat ere ez.

Eta ziklistak iragan ondorean? Berriz ere ibar atzenduak, zera lasaiak izanen dira.

Entendatzen duzie orai zerengatik heldu zait burura Bienvenido, Mister Marshall filma? Alta espainola da, ez frantsa... baia ba ote diferenziarik? ■

«Internet aprobetxatu egin
behar dugu»

XALBADOR liburudendako saltzaile ezezik, Karrikiri euskararen alde sortu berri den elkarteko partaide ere bada Mikel Aranburu. Bere ustez, euskararen inguruan lanean ari diren taldeek aprobetxatu egin behar dituzte Internetek eskaintzen dituen aukerak. «Gure artean informazioa trukatzeko batetik, eta web orrien bidez gure berri mundu zabalean emateko bestetik».

EKBko Jose Javier Iñigok ere ez dauka zalantzarik: «Euskara halakoetan egunean jartzen da edo pikutara goaz». Iñigoren ustez, telematikak eskaintzen dituen abantailak aprobetxatu egin behar dituzte euskararen inguruan lan egiten duten talde eta erakundeak. Horretan saiatzen ari dira EKBko kideak Eusnet elkartearen laguntzaz.

Eta orain arteko bidea, bere ustez, ez da makala izan, «teknologia berrien erabilpe-

nean urrats nabarmenak eman dituen mugimendurik badago, hain zuzen, euskararen mugimendua izan baita».

Iñigoren irudikoz, euskararen munduko taldeak hasi dira telematikaren munduan sartzen. «Euskararen munduak beti izan du teknologia berrietara egokitzeko sena eta orain ere izan du, beste batzuk baino askoz lehenago». EKBk, zalantzarik gabe, Internet sarearen erabilerean aldeko apustu garbia egin du, Eusnet sarearen bitartez. Epe luzeagorako ere badute esku artean hainbat proiektu, besteak beste, euskal bibliografia guztia Interneten sartzeta.

UEMA, AEK eta Iparraldeko Euskal Konfederazioa elkarteek, adibidez, dagoeneko sartu dituzte euren web orriak Interneten, Eusneten bidez. EKBk berak ere badu berea, nahiz eta oraindik proban

dagoen. Eduardo Valencia Nafarroako Internet Elkarteko kideak jakinarazi digunez, halaber, *Tipi Tapa* aldizkariak ere aurki izanen du bere web orria, egun hauetan zuzen. Ibilaldia bere orria izan zuten bezala, Nafarroa Oinez-ek ere badu berea. Etxarriko Andra Mari ikastolaren orri hau, hain zuzen, Mixki enpresak diseinatu eta garatu du. Oinez 96ko ibilaldia, bideo-klipa eta publizitatea sartu dute bertan. Nafarroako Txalaparta argitaleak ere badu bere web orria sortzeko asmoa.

Jose Javier Iñigo eta Eduardo Valencia ados dira, euskarak gero eta leku gehiago irabazten ari da Internet sarearen barruan. «Ingelesak ezezik, bestelako hizkuntzek ere tokia badutela Interneten konturatu dira erabiltzaileak», dio Valenciak. Nafarroako Internet Elkarteko kideak ere, euren web orrietan

zuzentzeko modua bilatu, adibidez». Euskararen inguruko taldeek ere, bere ustez, badute zeregin handia eremu honetan. «Euren laguntza eskaini behar diete Interneten bidez euskara ikasten ari diren guztiei».

Hizkuntzen ildoari jarraikiz, Interneten bidez Finlandiako suomiera ikasteko asmotan dabil orain Mikel Aranburu. «Modua badagoela uste dut, euskara ikasi nahi duen finlandiar bat aurkitu behar dut».


«Euskal izen propioak, kantuak eta bertsoak eskatzen dituzte, baita euren abizenen esanahia ere askotan»

«Garrantzi handia du beraientzat sustraietara jotze horrek. Hemen ez dago halako atxikimendurik»

zalantzak argitzeko eta elkarri laguntzeko erabiltzen dute Internet.

Aranbururen idurikoz orain arte arlo honetan egin dena polita

bada ere, gehiago sistematizatu beharko litzateke. «Gauza gehiago planteatu daitezke euskararen ikasketari dagokionez, ariketak jarri eta hurrengo egunean



Estatu Batuetako euskaldunekin harremanetan jarri da Mikel Aranburu Interneten bidez.

JOXE LACALLE

bertan bizi direla jakin ahal izan zuen Mikel Aranburu. «Elkarren berririk ez zuten orain arte. Oraindik ez dira elkartu baina elkartuko dira». Aranbururen bitartekaritza esker, hain zuzen, gutunak, argazkiak eta beste hainbat mezu trukatu dituzte hango eta hemengo Urrizola Errotarrek. «Nagorekoak ere euren familiaren historia ikertzen hasi dira. Loretaren aitonaekin batera Euskal Herriko joandako bere hiru anaien berri ere jakin ahal izan dute, hainbat urtetan zehar ezer jakin gabe egon ondoren».

Mikel Aranbururentzat atsegina da halako bitartekari lana egitea. «Harreman berezia sortzen da. Informatikaren kritikoei hurbiltasuna ukatzen diote, baina Interneten bidez, munduko edozein txokotako pertsona baten hitzak, bere pentsamendu eta gogoetak izan ditzakezu etxean, ordenadorearen pantailan. Politia da».

Estatu Batuetan edo beste hainbat lekutan bizi diren eta jatorri euskalduna duten lagunekin harremanetan jarri ondoren, bada Mikel Aranburu harritu duen zerbait ere: «Garrantzi handia du beraientzat sustraietara jotze horrek. Nabaria da. Estatu Batuetan, adibidez, mundu guztiko jendea dago, ez dute erro garbirik eta bilatu nahi dituzte. Nondik heldu diren jakin nahi dute, euren abizenen nondik-norakoak. Hemen ez dago halako atxikimendu sakonik. Hizkuntzarekin batera galdu da ideia eta gogoia. Han, berriz, nahiz eta hizkuntzarik ez izan, euren sustrai betetzen duena hori da, euskal izaera».

Amaiurko jatorria duen eta Bankuberren bizi den David Maritorenak ere Fernando Presa bidaiari ezagunarekin harremanetan jartzeko laguntza eskatuz igorri zion mezu bat Mikel Aranbururi. Bere lehengusuak Iruñean ikusi omen zuen Presa eta haren berri jakin nahi zuen, Alaskara egindako bidaiaren ezagutu baitzuten elkar. «Interneten bidez Gasteizko lagun batengana jo nuen eta haren bitartez jakin nuen Iruñean ari zela lanean. Maritorenari bidali diot bueltan informazio guztia. Ikusten denez, oso eraginkorra da Internet, gauza askotarako».

Euskaldun amerikarrek ere berezko ekimenak jarri dituzte abian euskal gaien inguruko gunean. Jatorriz bizkaitarra den Blas Uberoaga euskaldun amerikarrak, adibidez, Euskal Herriari buruzko orrialdea sortu du, *Buber's Basque Page* izenekoa. Euskal Herriari buruzko informazioa eskaintzen du bertan.

Euskara ikasi Interneten bidez • Lagun berriak egin eta mezuak igortzeko ezezik, euskara ikasteko ere balio du Interneteko *Basque List*-ek. «Hemengo jendeaz gain, Zeelanda Berriko, Kanadako, Islandiako eta Estatu Batuetako jendea ere ari da horretan». Aranburu aipatu duenez, unibertsitateko ikasle eta irakasleak dira *Basque List*-en gehien ibiltzen direnak. Euskal Ikastaroaren bidez, beraz, euskara ikasten ari direnek euren

Xanti Begiristain

ETBn ezer ez da berdin

■ Badakigu urtean zehar komunikabideek hainbat programazio aldaketa egiten dutela. Komunikabide guztiek egiten dute, hau da, egunkariak, aldizkariak, irratiek eta nola ez, baita telebistek ere. Oso ohikoak izaten dira, gutxienez, honako aldaketa hauek, alegia, udazkenekoa, Eguberrietakoa, eguberri ondokoa eta jakina, udakoa, orain dela gutxi hasi zaiguna hain zuzen ere.

ETB1 ere ez da salbuespena eta aldaketa horiek iragartzeko esaten digu «ETBn ezer ez da berdin». Orain, uda aldean, askoz ere programazio berri eta freskoagoa eskainiko digutela. Hala, esate baterako, azken bolada honetan ahaleginu dira esaten honako programa berri hauek izango ditugula ETB1ean: *The Basque Country*, *Haran eta Gailur*, Roberto Mosok aurkeztutako rock-and-rollari buruzko musika saioa, National Geographic Society-rena eta beste.

Nik oraindik ez dut programa guztiak ikusi, baina banaka batzuk bai, eta begira ezazue zer gertatu zaidan horietako batzuetan. Konparaziora, *Haran eta Gailur* programaren lehendabiziko bi saioak ikusi ditut eta aitortu beharra daukat, dagoeneko, aspaldian ikusiak nituela ETB1ean bertan. Afrikako herri bateko tribu batzuetako emakumezkoen ohiturei buruzkoak ziren. Aldatu duten gauza bakarra aurkezpena izan da, hots, Jon Anduezak egin baitzuen. Programa horrek jarraituko du egunero bazkalondoan lanegunetan; inork probatu nahi baldin badu aukera ona dauka. Egun berean baina gauzez *The Basque Country*-ren lehen saioa ikusi nuen. Izenburuarengatik erakargarria ematen zuen, gainera banekien Ludger Mees izango zela aurkezlea. Gaia: Zuberoako etxe hutsa. Ongi ba, atzerritarrek egindako saio honi buruz adierazi behar dut gauza bera, alegia, ikusita nuela; are gehiago, lanean aritzen naizen euskaltegian grabatuta daukagu programa hori bideozinta batean ETB1etik. Hau guztia diot inork ez dezan pentsa ni hemen asmakeriatan nabilenik.

ETB1ek gogotik iragarri eta oraindik iragartzen jarraitzen duen beste programa ospetsu bat zera da, National Geographic dokumentala. Saio berri honetan aurkezpena eta azken agurra sona handiko Inurrategi anaiek egiten dituzte. Lehenengo programa ikusi nuen baina ez naiz gauza ziur-

tatzeko lehenago emana zuten ala ez, denborak esango du.

Gorago aipatu bezala, Euskal Telebistaren lehen katean oraindik badaude programa berri gehiago uda honetarako, baina oraindino ikusi ez ditudenez, horiei dagokienez momentuz ez dut deus ere esanen. Izenburuei buruz behintzat ezin esan, zenbaitetan behinik behin, ez direnik saiatu izen unibertsalak jartzen, hots, ingelesez.

Hala eta guztiz ere badago ETB1ean kontu bat ukaezina dena. Seguru asko telebista hau izanen da publikoen artean gehien errepikatzen due-

Ludger Mees, *Basque Country* saioa aurkezlea.

ARTXIBOKOA

netariko bat. Oraintxe bertan *Jaun ta Jabe*, *Goenkale*, *Txiskola* eta abar errepikatzen ari dira, hainbat kasutan hiru eta laugarren aldiz.

Beste alde batetik badaude beste programa batzuk, udaro oso gogo handiz jartzen dituztenak. Ez dakit ziur errepikatuak dauden atalak baina telesailak behintzat bai, adibidez, *Magnum*, *Parker Lewisek ez du sekula galtzen*, *Paregabeko parea* eta abar (batzuk egunean bi aldiz). Ikusi dudana azken filmea ere lehenago emana zuten.

Esanak esan, ateratzen ditudan ondorioak: a) «ETBn ezer ez da berdin» ez da egia. Badaude gauza ezberdinak, berdinak eta gauza berberak makilaje berri batekin. b) Gustu askotarako daude, norberak aukeratu behar; d) ETB1ek apalagoa izan beharko luke programazio berria iragartzean eta egia zuzenago esan; e) Agian ETB2ri aurrekontu pixka bat kendu beharko liokete ETB1i gehiago emateko, eta f) Nik ere errepikatu dut iazko kritika, baina ezin da telebista horren jarraitzaile ona ez naizela esan. ■

Klasiko bitxi, arrot klasiko

Joxemiel Bidador

Emaztekien segida VI:
Errosa Bustintza Mañariko

■ «Sasi guztien gainetik / eta odel guztien azpitik / harantz arnasa baten / eta honantz beste baten / trularalara trularalara / goazen Mañarikoarengana». Alkalarrera joateko Petralandako sorginek erabili ei zuten konjuroaz hasmenta eman nahi diogu gaurkoan Evaristo Bustintza Kirikiño zenaren ilobak genituen Errose eta Basilia Bustintza Ozerin Lasuen Arriaga zenaz arrikatu dugun honi. Bietan zaharrena Basilia genuen deblauki, hogeitertan Kirikiño osaba berberarekin ezkondu zena hots. 1889.eko irailaren 26an jaio zen Mañarian, Arrueta auzoko Zumelaga etxean, eta senarra 1929.ean zendu zitzaionetik Errose ahizparekin bizi izan zen Mañarian, 36.eko gerratearen garaian Iparraldean eman zuten denboraldiaz salbu. Errose ez bezala luzaro bizi zen, eta buruko odol gogorduraz 1972.ean hil zitzaigun. Idazle bezala gutxi izan zen laga ziguna, are gutxiago iritsitakoa, alta apalaren apal eta umilaren umil, etzuen nahi bere izenez izenpeturik deus ere agertzea. Alabaina, bere olerkiren bat gureganatu zen Oleri aldizkarian Karmel ezizenez izan arren: «Txoria banintz ortxe nengike / neure abia gañe orretan / kantuz lertzeko ordu orotan / maitemiñezko didar zal orri / gottik yatoriko doa-iturri / niretzai beti odo pozgarriri».

Errose aipatu Zumelaga etxe berean sortu zen 1899.eko irailaren 3an. Esan bezala gerra garaian Iparraldean eman zuten denboraz lekot —non Lapurdiko zenbait ipuin jasotzeko aukera aprobetxatu zuen—, sortetxean egon zen gehien, ezkongabe gazte hil zen arte, leuzemiak edo odol-zurbil gaixotasunak jota. 1953.eko abuztuaren 20an. Garaikide zituen bestelako euskal idazlek egin antzera orduko hainbat argitarapenetan barrelatu zituen bere idazki nardoak, besteak beste *Euzkadi* egunkaria (1930-36), *Euzko-Enda* (1939-40), *Gernika* (1951), *Karmel* (1956), *Jesus'en Biotzaren Deya* (1952), *Anaitasuna* (1942), eta abarretan, halaz guziz ia bere lan osoa guztiz gehiena irakurtzeko aukera badugu, izan ere Jaime Kerexeta Gallastegik hartu zuen artari eskerrak egun Mañarikoren ipuinak irakurtzen ahal baititugu liburutegi zaharretako apalategietan metatzen den hauts nabarra irentsi eta arnastu beharrik izan gabe. Dituela bost urte eskax, eta Gero Euskal Liburuak argitaletxearen eskutik, aipatu Elorrioko apezak bildu eta Josu Unzuetak baturaraturik agertu zen aspaldi batean Bilboko *Jesusen Biotzaren Deya* eta *Anaitasuna* aldizkarietan agerturiko ipuinak. Hauexek 49 idazki herriko dira, beti ere gai folklorikoen gainean eraikirik, sorgin, lamia, prakagorri eta abar pertsonaia, eta Durangaldea, Oitz mendi, Saibigain, Urkiola eta abarretan kokaturik. Literatur kritikalarri hainbatek —baldin eta zilegi dugun euskal literatur kritikagintzaz mintzatzea—, ele amultsuak izan dituzte Errose-rekiko. Onaindiaren mintzoan Mañariko *«idazle biotz samur, ta ezitia, mitxeleta egon ezin antzera, mendil, baserri ta arkaitz zulo zear ipuin tximel billa, inoiz nekatu etzana»* genuke: «rudimen azkarra du, bere errikoen agotik jasoriko ipui, esaera ta elezarrez edestu ta kontaera zoragarriak eratzeko». Bitaiok ere Egan aldizkarian gorazarrezko hitzak bazekartzan: «Mañariko izango zain, ziur asko, elezarretzaz edeski ta ipuiñak idazten lumarik idurimen aberatsenatarikoa». Kortazarrek berriz bere 100 idazleen bilduman honela zioen lasai aski: «Gai ta bide errez-egokiz, antze ta elerti balio zitureko idazlanak lortu zituen. Non ote dugun orren ezkutua? Egizale izan zitzaigun bere izakeraren ariora, ta jaio ta il zan bere txoko laztaneko baserritarren kontaeretan argi-erazi ta mugitu zan». Andima Ibiñagabeitiak, ostera, *Euzko Gogoa* aldizkari txoan honakoak plazaratu zituen: «Trebea duzute Mañariko Errose ipulak idazten, gure artean garalenetakoa nik uste oraingo ontan. Ba dizu trudimena, eta ba dizu batez ere biotzondo». Zaratek bere *Bizkaiko Euskal idazleak* liburuan gatz eta piper doi bat minago azaltzen zuen kritika hagitz goxoa izatearekin ere: «Ez eban libururik egin Bustintza Errosak. Baiña bere idazlan guztiak batu ezkerko liburu ederra argitaratu leike».

Ipuigilea ezezik sena finduko olerkaria ere baguenen Bustintza andrea, eta horren erakusgarri Santi Onaindiaren *Mila euskal olerki eder* bilduma ospetsuan badugu *Abesti zarra*, *Josuren biotza* edo *Slaska abestia* hirukotea lekuko irakurgai. ■



Iruñeko hiria xake torneo itxiko 4. jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 30ean jokatua
Pablo San Segundo, 2.520 ELOkoa (Espainia) —
Felix Izeta, 2.495 ELOkoa (Euskal Herria).

1.d4,Zf6; 2.c4,e6; 3.Zf3,Ab4 xa; 4.Ad2,c5; 5.Ab4,b4; 6.g3,b6; 7.Ag2,Ab7; 8.0-0,0-0; 9.bZ-d2,d6; 10.Db3,a5; 11.a3,Za6; 12.fZ-d1,De8; 13.Zf1,b5; 14.Ze3,Ae4; 15.a4,c4; 16.Zc4,Dd8; 17.dG-c1,Gc8; 18.De3,Gc6; 19.cZ-d2,Ad5; 20.Gc6,Ac6; 21.Dd3,Zb8; 22.Ze1,Ag2; 23.Zg2,e5; 24.Zb3,Zc6; 25.d5.

Partida zaila jarri zaie beltzei, baina kontraerasoa egiten badakitela erakutsiko dute.

25....,e4; 26.Db5,Ze7; 27.Da5,Dd7.

Ikus koadroa. Gazteluko peoiaren arriskuaren

aurrean, joko ausarta erabakiko dute beltzek.

28.Db4,eZ-d5; 29.Dd4,Gb8.

Jokaldi gakoa beltzen kontraerasoan.

30.Dd1,Dh3.

'Zg5-eko' arriskua dago.

31.Zd2,e3; 32.Ze3,Ze3; 33.e3,h5; 34.Df1,De6;

35.Df3,Gb2; 36.a5.

Beltzen sarreraren aurrean, berdinketa lortzeko moduko jokaldia.

36....,Gd2; 37.a6,Ga2; 38.Ga2,Da2;

39.Db7,De2; 40.a7.

Partida berdinean bukatzeaz zegoenean (xake jarraituaren bidez), beltzen erloju kalkulatu oker batek hondamendia eragin zuen. Bandera erori zitzaion eta galdu zuten.





NUPeKo ikasleen arteko harremanei buruzko ikerketa egin dute.

XOUSE SIMAL

Lagunak eta unibertsitatea

NUPeKo laguntasunezko harremanak aztertu ditu Soziologiako euskarazko talde batek

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) ikasle gehienek bertan dituzten lagunak lehendik ezagutzen zituzten. Gai-
nontzekoen ustez, berriz, jaiak dira harreman berriak hasteko aukerarik onena. Ikasleen hiru laurdenek, berriz, NUPen laguntasunezko harreman sendoak sortzen direla uste dute, nahiz eta ia % 40k noizbait interesaren arabera harremanak izan dituztela onartu. Hauek dira Soziologiako ikasle talde batek egin ikerketak plazaratu dituen hainbat datu.

Edune Elizondo / Iruñea

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO (NUP) Soziologiako euskarazko ikasle talde batek unibertsitatean izaten diren laguntasunezko harremanak aztertu ditu. Ikerketaren diseinu teorikoa, datu bilketa eta emaitzen tratamendu informatikoa izazko ikasturtean egin zuten Olatz Muñoz eta Carlos Vilches soziologoek zuzendaritzapean, eta aurtengoan, berriz, lortutako datuak aztertu eta hainbat ondorio atera dituzte. NUPeko ikasleen artean zer harreman mota dauden eta nola sortzen diren ezagutzeari izan dute helburu.

Giza Ikerketarako Teknikak izeneko ikasgaiaren izena eman zuten ikasle euskaldunen inte-

resa, hasieratik piztu zuen aipatu gaia aztertzeko proiektuak. NUPeko ikasleen artean galde-
tegia banatzea izan zen lehen lana. Galdetegia, hain zuzen, ikasketa eta ikasmaila guztietan banatu zuten, fakultate bakoitzeko ikasle kopuruaren arabera. Baliogabeko inkestak baztertu ondoren, 753 izan ziren bukaeran ikerketa lanaren oinarri hartu zirenak. Emaitzak aztertzean, ikasleen definizio sozio-demografikoa egin dute lehenik Giza Ikerketarako Teknikak ikasgaiko hamar ikasleek. Horren arabera,

gizonezkoak ingeniariartzetan dira nagusi eta emakume kopurua nabarmentzen da gainontzekoetan, Erizaintzan, Gizarte Lanean eta ekonomia eta lanaren eremu-
ko ikasketetan batez ere. Elkarriketatuenak norekin bizi diren aztertuz gero, berriz, gehienak famili eredu klasikoaren barruan bizi direla aipatu behar da. Ikasturtean lagunekin etxe batean bizi direnak daude bigarrenik eta gainontzekoak senitartekoekin eta erresidentzietan. Azpimarratzekoa da, hala ere, % 2,9 bikotekidearekin bizi direla. NUPeko

ikasle gehienak, halaber, Iruñerrian bizi dira ikasturtea amaituta ere.

NUPera ailegatu aurreko ikasketei dagokionez, bestalde, % 59k ikastetxe publiko batean egin dituzte ikasketa ertainak, ikastetxe pribatu batean ia % 30k eta % 6,2k ikastolan —pribatu zein publikoetan—. Ikasleen ideologiaz ere galdetu dute ikerketa lanean soziologiako ikasleek. Gehienek, % 33,7k, ezkerrean kokatzen dute euren burua, % 26,4k erdian eta % 7,8 eskuinean. Eskuin muturrean,

halaber, % 1,7k eta ezker muturrean, % 14,6k. Fakultateen arabera ezberdintasunak ageri dira ideologiari dagokionez. Eskuinerako jarrera handiagoa dago ingeniariartza ikasketetan; enpresa eta ekonomiaren arloan erdiko jarrera nagusitzen da eta ezkerreko jarrera nabariagoa da psikologia eta gizartearen arloko ikasketetan.

Harreman sendoak ala

interesaren arabera • Unibertsitateko barruko giroa aztertzean agertzen dira laguntasunezko harremanei buruzko lehen emaitzak. Ikasle gehienek (% 64,2) atsegin dute NUPeko giroa. Emakumezkoen atsegina-
goa zaie gizonezkoen baino, gainera. Elkarrizketa egindako hamar lagunetik bederatzik diote, halaber, unibertsitate eremuak berak erraztu eta ahalbidetzen du elkar topatu eta harremanetan hasia. Gai horri buruz ezkorragoak dira ideologikoki eskuin aldekoak direnak.

NUPeko ikasleen gehiengoak (% 53), berriz, unibertsitatean ailegatu aurretik bertan dituen lagunak ezagutzen zituela azaldu du. Gainontzeko gehienei (% 32) unibertsitateko jaiak ematen ditte lagun talde bat aurkitzeko aukera. Hamar ikasletik bederatzik, bestetik, gehienetan ikastaldeko lagun berberekin esertzen da eta jende berarekin egoten da atsedendian ere. NUPeko ikasleek, hala ere, oro har laguntasun maila zabaldu eta sakontzeko interes nabarmena dute (% 57k). Auzi honi dagokionez, emakumezkoek, lehen ikasturteko ikasleek eta ikastetxe publikoetatik datozenek portzentaia handiagoak agertzen dituzte.

Ikuspuntu materialistak ere badu eragina NUPen lagunak egiteko orduan. Hala onartu du hainbatek, behintzat. Elkarrizketatuen % 71rentzat apunte onak edo liburua izatea, adimentsuagoa izatea edo kotxea edukitzea bezalako kontuek ez dute garrantzirik lagunak egiteko orduan. % 23,4k, berriz, hasieran eragina izan dezakeela onartzen du, eta azkenik, % 3,3k dioen legez, ezinbesteko garrantzia duen gaia da hauxe NUPen dituzten harremanak aukeratzeko. Sexuak, berriz, ez ditu harremanak baldintzatzen. Lau ikasletik hiruk bi sexuekin berdintsu dituzte harremanak. Hamar ikasletik bik, hala ere, onartzen dute hasieran sexuak eragina izan zuela.

Unibertsitatean lagunak egitea, gainera, ez da denentzat erraza. % 64k eragozpen azpimarragaririk izan ez dutela dioten arren, bada hainbat arazo izan duen ikaslerik, % 23k hain zuzen. Halaber, NUPeko ikasleen hiru laurdenek unibertsitatean laguntasunezko harreman sendoak sortzen direla diote. Baina bada interesagatik bakarrik sortzen den erlaziorik ere, halaxe dio % 58k. Apunteak dira gairik preziatuenak halako harremanetan. Ia % 40k onartzen dutenez izan dute inoiz halako harremanik.

Lagunak ezazik, bikotea ere aurkitzen dute NUPen bertako ikasle askok. Inkesta egin dutenen ia % 37k badute bikote harremanik, eta portzentaia hone-
tatik ia % 9k bikote harreman horren hasiera unibertsitatean izan zela azaldu du. X

«Harremanak zabaldu behar dira»

CARLOS VILCHES eta Olatz Muñozen zuzendaritzapean ekin zioten lanari Soziologiako euskarazko ikasleek. Aurtengo ikasturtean Giza Ikerketarako Teknikak irakasgai euren esku egon ez bada ere, ikasleekin lanean jarraitu dute bi soziologoek. «Lan talde polita sortu zen ikasgelatik at ere», azpimarratu du Carlos Vilchesek. Ikerketa lanari buruz mintzatu da gurekin.

Aipatu duenez, ikasketa teorikoa eta praktikoa batzeko aukera eskaini zien NUPeko laguntasunezko harremanei buruzko ikerketak ikasleei.

«Soziologoak bere la-

nean zein oztopo aurkitzen dituen ikasi dute. Prozesu guztia euren egiten ikasi dute eta hori ez da normalean gertatzen dena. Arlo teorikoa ikasi eta gero ikerketa zehatz batean aplikatzeko aukera izan dute», azaldu du Vilchesek.

Aukeratutako gaiari dagokionez, bere beritasuna nabarmendu du soziologoak, «orain arte ez baita horren inguruan ezer egin. Ikasleen interesa berehala piztu zuen, gainera». Zehaztu duenez, halaber, «lan deskriptiboa egin dugu. Datu eta aukera asko dago orain lan berriak

egin edo gurea sakontzeko».

Ikerketan lortutako datuak aztertzean atera dituzten hainbat ondorio ere mintzagai izan ditu Carlos Vilchesek. Azpimarratu duenez, nahiz eta NUP harremanak sortzeko oso leku egokia izan, ordu askotan elkarrekin egoten baitira ikasleak, oraindik ere ohitura oso tradizionalak gordetzen dira. «Hau da, ikasleak zirkulo berean mugitzen dira, pertsona berberekin egoten dira beti; beraz, harremanak bideratuta daude neurri batean, harremanak zabalzea falta da».

Vilchesen iduriko,

halaber, klasetik at ere esparru berriak zabaldu behar dira, orain artean ikasgela izan baita ardatz nagusia. «Ikasleek beste esparruak eskatzen dituzte, hala nola, taldeak, ekintza berriak, jaiak, ikasgelatik at ere jende berria ezagutu eta harremanak zabalteko».

Esparru berriak zabalteko funtsezkoa da Vilchesen ustez, «Nafarroako Unibertsitate Publikoa ez baita oraindik Iruñean edo Iruñerrian erreferente kulturaltzat hartzen. Kontuan hartu behar da, hala ere, unibertsitate berria dela eta denbora behar dela halako helburua lortzeko».

◆ Mikel Olló ◆ Bideak elkarteko kidea

«Arautuko gaituen legedia behar dugu»

Turismoaren eremuko hamabi enpresa nafar bildu eta Bideak elkarte osatu dute. Aste honetan bertan eman du bere burua ezagutzera jendaurrean, bere asmoak azalduz, talde honek. Natur eta kultur turismoaren arloko enpresak dira Bideak-en bat egin dutenak, eta sektoreko egoera hobetu eta euren eskaintzaren kalitatea bermatzea dute xede.

Edurne Elizondo / Iruñea

BIDEAK elkarteko kide da Mikel Olló. Natur eta kultur turismoa lantzen du berak Errekan. Olló aipatzen duenez, batzea da denen artean turismoaren alorrean zerbait egin ahal izateko aukera bakarra.

■ Nola sortu zen zuen artean bildu eta Bideak sortzeko asmoa?

Erran behar da turismoaren oinarria, batez ere, alojamendua, garraioa eta bazkaria dela, eta Nafarroaz kanpoan ematen den irudia hori da. Guk, aspaldidanik, hiru oinarri horiek batuz lan egiteko aukera zegoela uste genuen. Bakoitza bere aldetik hasi zen lanean hasieran, batzuk kulturaren eremuan kokatuz eta beste batzuk naturaren alorrean. Bideak sortu aurretik egon ziren elkartzeko beste bi saio ere, baina huts egin zuten, batez ere azpiegiturarik gabeko taldeak izan zirelako saio horiek egin zituztenak. Iaz, beraz, proiektu serioa sortu beharraz ohartu ginen. Natura eta kultura batu behar genituela argi genuen. Nafarroako turismoak biak biltzen baititu. Nahiz eta bakoitzak funtzionamendu propioa izan elkarrekin egon behar genuela bagenekien eta lortu ahal izan genion.

■ Ze da, beraz, Bideak-en helburua?

Enpresak batzen dituen elkar-



Bideak elkarteko kide da Erreka enpresako Mikel Olló.

JOXE LACALLE

tea dela argi utzi nahi dut lehenik eta behin, enpresak baikara Bideak-en gauden guztiak; lagun arteko behin-behineko taldeek ez dute lekurik gure elkartearen. Ildo horretatik, beraz, turismoaren sektore honetan lan egiten dugun enpresak babestea du helburu Bideak-ek. Halaber, eztabaidarako gunea ere sortu nahi dugu, gai asko baitago arlo honetan argitzeke oraindik.

■ Zer-nolako gaiak, hain zuzen?

Kalitateari dagokionez, adibidez. Kultur edo natur ekitaldiaren bat erostean, bezeroak zer erosi duen ez daki ekitaldi hori ezagutzen duen arte. Beraz, gure eskaintzaren kalitatea bermatzeko moduak bilatu behar ditugu, bezeroak ziurtasun eta segurtasun osoa izan dezan. Legediarena ere bada zehaztu nahi dugun gai bat, gaur egun ez baitago oraindik babesten edo arautzen gaituen lege-

dirik. Edozeinek nahi duena egin dezake. Hutsune legal nabaria dago. Gure eskaintzaren komertzializazioa ere zaila da banaka joanez gero. Bakoitzak berea eman behar du ezagutzera baina ez da erraza. Baturik, errazagoa izanen dela uste dugu. Datozen uda sasoiatarako zehaztu eta konpondu nahi ditugu gai hauek.

■ Kalte handia egiten al dio zuen jarduerari legedirik ez izateak?

Oso handia. Gu legearen barruan lehiatzen ari gara elkarrekin, gure zergak eta seguru guztiak ordainduz. Baina bēti daude inolako azpiegiturarik gabe eta askotan beharrezko prestakuntza izan gabe halako turismo jardueretan aritzen direnak, udan batez ere. Bada agertu eta desagertzen den talde asko. Eta halakoetan, istripuren bat gertatuz gero nork hartzen du bere gain erantzukizuna? Kalitatea ere kontuan hartu behar da. Askotan ezin da ziurtatu talde horietan aritzen direnek benetan lan hori egiteko ahalmena duten. Hori lortzeko modu bakarra arautzea da, hau da, halako ekitaldiak egin nahi dituenari hainbat baldintza

eskatzeko. Eta betetzen ez dituenak ezin izanen du lanik egin. Nafarroako Gobernuaren betebeharra da araudia egitea. Kezkatzen gaituen gaia da eta konponbide bat eman nahi diogu.

■ Zer abantaila eskaintzen dizue Bideak bezalako elkarte batean batzeak?

Babesa, batez ere. Bestalde, Bideak-era jotzen duen edonork badaki horren atzetik jende multzoa dagoela eta jende horrek gutxienez kalitatea emanen diola.

■ Eta zuen bezeroei dagokienez, nolako eta nongoa da?

Jarduera bakoitzak jende ezberdina erakartzen du. Urte-sasoaren arabera ere, gainera, ezberdinak dira bezeroak. Noski, natur ekitaldiek jende gazteagoa erakartzen dute; kultur jarduerak, berriz, helduagoa. Eta nongoa? Udan, batez ere, Euskal Herriko gainontzeko herrialdeetatik, Madrildik, Bartzelonatik eta Valentziatik datoz turistak. Kultur jardueretan, berriz, ugariagoak dira atzeritarrak.

■ Nafarroako bezeroari eskaintzeko zer dute Bideak elkarte-ko enpresek?

s o' s l a i a

Erreka da aisiaren inguruan Nafarroan dagoen enpresetako bat. Orain bi urte sortu zen Izaban baina azken urtean Iruñean izan du egoitza. Mikel Ollóekin batera, Carolina Paton da Errekako partaidea. Natur ekitaldiak ezezik, kultur arlokoak ere lantzen dituzte. Iruñean bertan nahiz hortik kanpo.

Mikel Ollórentzat argi dago batzea dela bide bakarra berea bezalako enpresek aurrera egin dezaten. Euren jarduera arautuko duen legedirik ezean, gainera, are zailagoa da euren egoera. Arazo horiek konpondu nahi ditu Bideak-ek. Otsailean sortu zen elkarte hau, nahiz eta sektorean lan egiten dutenen aspaldiko asmoa izan.

Bideak elkartearen ibilbidea hasi berri da. Gure artean elkartzeko izan da lehenengo gauza. Uda honetan zer edo zer egiteko berandu da baina hemendik aurrera, gogor ekinen diogu lanari. Gure asmoa da lehen emaitzak datorren udarako lortzea.

Babesa, batez ere. Egia erran, negu partean Iruñekoak dira gure bezero gehienak. Hala ere, nafarrek Nafarroa osoa ezagutzen dutela uste dute askotan, nahiz eta hala ez izan. Gure ustez, zer ikusi eta zer ikasi asko dute oraindik ere.

■ Oro har, zein da Nafarroan turismoaren sektoreak bizi duen egoera?

Zaila da. Egiteko deus ez dagoela pentsatuz etortzen da jendea Nafarroara. Arazoa da, egiten ari garena ez dela bultzatzen. Gure ekitaldiei buruzko foiletu guztiak, adibidez, guk geuk egiten ditugu eta ahal dugun moduan banatzen ditugu. Baina erakundeek ez dute eskaintza hori modu zabalean balizko bezeroengana heltzeko ahaleginik egiten. Guk ez dugu gehiago zabaltzeko ahalmenik. Nafarroako Gobernuak ere ezin du egin, ez baitago legedirik; beraz, turismoaren merkaturik kanpo gaude gu.

«Egiteko deus ez dagoela pentsatuz etortzen da jendea Nafarroara. Ez da egia, baina zaila da gurea ezagutzera ematea»

P A N E LUCRÁNDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ
HONATAGO
-19-

GAUR:

Omar
Khayyam

Biharamunak Zer ekarriko dizon ez dakizonez, ahalegin zaitetz zoriontsu gaur izaten...

Har ezazu arduu unzi bat eseri zaitetz hilargiaren argitan

eta edan ezazu pentsatuz bihar hilargiak agian alferrik bilatuko zaituela.